

Alberto Ladron Arana

Wikipedia(e)tik



Alberto Ladron Arana (Iruñea, 1967ko abuztuaren 1a -) euskal idazlea da. Maisutza eta psikologia ikasia. Fantasiaren eremukoa izan zen bere lehenengo eleberria, *Itzalaren baitan* (Irun Hiria saria). Geroztik, misterioaren alorra landu du gehienbat: *Xake Mate* (Agustin Zubikarai saria), *Eguzki beltzaren sekretua* eta *Arotzaren eskuak*.

Lanak


Nobela

- *Xake mate* (2002, *Elkar*) Agustin Zubikarai sariaren irabazlea.
- *Itzalaren baitan* (2001, *Kutxa Fundazioa*)
- *Eguzki beltzaren sekretua* (2004, *Elkar*)
- *Arotzaren eskuak* (2006, *Elkar*)
- *Ahaztuen mendekua* (2009, *Elkar*)
- *Zer barkaturik ez* (2011, *Elkar*)
- *Piztiaren begiak* (2012, *Elkar*).
- *Harrian mezua* (2014, *Elkar*)^[1].

Kanpo loturak

- «Alberto Ladron Arana», *Literaturaren Zubitegia*.
- Alberto Ladron Aranaren webgune ofiziala

ITZALAREN BAITAN



2001 IRUN SARIA

Itzalaren baitan / [Alberto Ladrón Arana](#) / Kutxa Fundazioa, 2001

Atipikoa Aingeru Epaltza / Nabarra, 2002-07

Idazleak sariak irrikatzen ditu, sosa eta izena ematen dutelako opari. Alabaina saria tranpa hilgarria ere gerta daiteke, irabazitako idazlanari gutieneko zabalkunde duina segurtatzen ez bazaio. Etxe ondoko liburudendan ez dagoen liburua eta idatzi gabea ez daude elkarrengandik hain urruti, irakurle izan behar lukeen horrendako.

“Itzalaren baitan” Alberto Ladrón Arana irunsemearen lehen nobelak Irun Hiriko literatur saria bereganatu zuen joan den urtean. Tamalez, oharkabean pasatu den susmoa dut, banaketa urriaren eta hutsaren hurrengo promozioaren ondorioz. Eta tamalez diogu, zinez merezi baitu euskal irakurlearen arreta.

Nobela atipikoa dugu “Itzalaren baitan”, euskaraz gutitan ikusten diren horietarik. Lehen-lehenik, elaberri luzea dugu eta horrek nabarmen bereizten du gure banazbertzetik. Bigarrenik, eta are garrantzizkoagoa, proposatzen duen gaiak ikustekorik ez du gaur egun euskal nobelagintzan nagusi diren joera errealista eta garaikideekin.

Ladronen lurralde eta iragan mitiko batean kokatu du bere lana. Irakurleari, Tolkien eta haren jarraitzaileen lanak etorriko zaizkio noski gogora orrialdeak iragan ahalean: inperio handiak eta haien auzo basak, magia eta gizakiz gairik indarrez elikatzen den misterioa, talde askotariko samarra halako eginkizun berezi bat burutu nahian dabilena, gogoz kontrako protagonista sinesgabea, batailak eta ekintza bortitzak... Antzekotasunak, dena dela, hor gelditzen dira. Ladronen nobelari darion kutsu tragiko eta iluna ez da aurkituko idazle britaniarrarenetan, are gutiago kontakizun nagusiarekin paraleloan doan konspirazio politikoaren aztarnarik. Izan ere, Ladronen liburua ez da abentura soila; botereaz eta sinesmenaz ari zaigu, gaizkiaz, ongiaz, mundu ukigarritik haratakoaz.

Liburu on bat idazteko, ausardia, idazkera sendoa eta lan egiteko gogoia ezinbertzekoak dira, eta horretatik aski duela erakutsi du Ladronen lan honetan. Emaitzak horren heinekoak diren, eztabaidagarriagoa da. Nik, bederen, nahi baino hari-mutur gehiago aurkitu dut, lotu gabe, orri hauetan zehar, baina hau barkagarria da argitaratzen hasi berri batengan.

Erranak erran, Alberto Ladrón kontuan hartu beharreko izena da, hemendik goiti, euskal literaturaren munduan. Ez baitu gelditzeko asmorik. Bigarren liburua, behintzat, karrikan du, utzi berria. Gure esperoan.

XAKE MATE



2002

Xake Mate eleberri laburra da luzeraz, baina indartsua sortzen duen giroz eta intentsitatez. Nobela laburrentzako Agustin Zubikarai I. Saria irabazi duen lan honek II. Mundu-Gerraren osteko Alemaniara garamatza, bertako hiri porrokatu batean batean bizi baita pertsonai nagusi eta kontalaria: mutiko bakarti bat, gerrako miseritan hanka bat galdu eta gurpil-aulki batean dabilena. Isaeraz isil eta lotsatia, ez du interesik ez erreztasunik bere adinkideekin harremanetan sartzeko, eta xake-joan bilatuko du beharrezko aterpea. Hala, xakea bihurtuko du ez bakarrik denbora-pasa, baizik mundua ulertzeko modu, eta geroxeago baita borrokarako eskola ere. Trama sendo eta ongi egituratua asmatu du egileak, gerraosteko penizilina-kontrabandoa dagoela erdi-erdian, eta inguruan, berriz, Angela neskato aingerutiarra.

Xake mate / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2002

Koadrotan sailkatutako bizitza Amagoia Iban / *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-06-15

Gure pertsonaia memoria egiten ari da. Gure pertsonaiak, izan ere, badu zer gogoratu haurtzaro-nerabazaroko urteez: bonbez txikitutako Berlin hiria, frontean hildako aita soldadua, xakean aritzen ikasi zueneko garaia, zangoa moztu ziotenekoa, gurpil aulkiaren kirrinka hotsa eta, batez ere, Angela. Angela baita gure protagonistaren lehendabiziko elbarri urteak gozatu zituen lagun bakarra —amaz gain, jakina; amak horretarako daude literaturan ere—.

Horregatik maite du Angela gure pertsonaiak, zomorro baten antzera ikusten ez duelako eta gerra osteko penizilina gabeziagatik galdutako zangoa ez diolako etengabean gogorarazten. Edo agian bai? Penizilina kontrabandoa ere eguneroko ogia baitzen II. Mundu Gerrako Berlinen —esateko modu bat da, ogi asko ez baitu jaten gure protagonistak—. Penizilina eta beste edozer gauzarekin egiten baita kontrabandoa eskasia dagoenean, gauza jakina denez. Eta gure protagonistak badaki zer den gabeziak edukitzea.

Gure pertsonaiak, hala ere, xakearekin liluratuta ematen du *Xake mate* honetako parte nagusia. Xakearekin, bai, taula koadrodunaren aurrean zango falta, aita falta eta ia denaren falta ahantzi egiten duelako. Maximilian plazako Bavaria tabernako ataria, bere xake jokalaria edadetuak eta guzti, halako zero artifizial bat baita gure pertsonaiarentzako. Eta zero horretatik ez da bonbarik jaisten. Horregatik, seguruenik, gure protagonistaren egunerokoan agertzen diren pertsonaia gehienak xake pieza izena hartuz doaz pixkanaka-pixkanaka, halako alderaketa etengabe batean.

Batetik, peoiak daude —gure protagonista da lehendabiziko peoia, berak propio dioenez—. Bestetik, Errege Beltza eta Erregina Zuria daude —Angelaren aiotaordea lehena; Bavaria tabernako nagusi Hilde anderea bigarrena—. Azken bi horiek pieza handiak dira xakean eta baita gure protagonistaren kontakizunean ere. Liburuak aurrera egin ahala, gainera, arrain gero eta handiagoak bilakatzen dira errege-erreginak.

Gure protagonistak, finean, gerra galdu berria zuen Alemanian bizi izandako pasadizo batzuk kontatzen dizkigu, kontaketa zuzen eta erritmiko batean. Nazismoaren itzala une oro ageri da kontakizun horretan, noski. Umiliazio sentimendua eta kanpotarrekiko jarrera ezin nazkanteagoa ere bai.

Gure eta idazlearen pertsonaia

Gure pertsonaia, noski, Alberto Ladron Arana iruindarrarena da batez ere. Pertsonaia horri esker irabazi du, gainera, I. Augustin Zubikarai saria Nafarroako Unibertsitatean bedel lanetan aritzen den idazle honek; eta, irabazi duen saria horrelakoak plazaratzeko sortua denez, eleberri labur bat da eraiki duena. Edo ipuin luze bat, nahiago bada.

Ez du lehen saria eta, orainoan, oso erraz irakurtzen den liburu bat osatu du Ladron Aranak pertsonaia nagusi orojakile baten bitartez. Bigarren mailako pertsonaia batzuk topikoegiak iruditu zaizkigu eta, zenbaitetan, sinesgaitzak iruditu zaizkigun komentarioak egiten ditu pertsonaia nagusiak Gernika bonbardatuko umeei entzundako komentarioekin zerikusirik ez duen gogoetak egiten ditu, behintzat, pertsonaia horrek. Agian, belarria ez genuen behar bezain erne edukiko. Litekeena da.

EGUZKI BELTZAREN SEKRETUA



2004

Eguzki Beltzaren Sekretua espioitzazko *thriller* klasiko bat da, irakurlea nazien Alemaniara daramana eta bere trama zirrargarrian katigatuta edukiko duena; hala ere, baditu ukitu fantastiko eta are esoterikoak ere, nortasun berezia ematen diotenak: zertara joan da SSetako espedizio bat Tibetera? Zer misterio ezkutatzen du Wagnerri buruzko espezialista den ofizial nazi horrek? Zer lotura du horrek guztiak Mundu Gerrarekin? 1939ko otsaila da. Gerra Zibila amaitzear da Espainian, baina askoz gatazka gogorrago eta odoltsuagoaren zantzuak sumatzen dira Europan: potentzia batzuk eta besteak beren armadak indartzen ari dira, eta zerbitzu sekretuen bitartez etsaia zelatatzen. Giro nahasi horretan, Iparraldean aterpetua dagoen gudari gazte bat espioi-lan lanbrotsu bezain enigmatikoa egitera bidaliko dute bere buruzagiek, Parisen aurrena, nazien Alemanian gero, berak jakin gabe agente espainiar bat orpotik duela uneoro.

Espioi-eleberri onenen ezaugarriak ditu **Ladron Aranaren** nobela honek: dokumentazio zorrotza, girotze bikaina, pertsonaien psikologia berezia, maisuki jositako haria, idazkera arina, erritmo ongi neurtua... Horri, eta liburua zipriztintzen duten ukitu fantastikoei esker, irakurlea hasieratik amaieraraino bizi bezain gozo eramaten duen lana burutu du egileak. Eta hondarrean galdera zentzugabe bat piztuko zaio agian: hau dena sinestezina da baina, halako zerbait izan balitz...?

Eguzki beltzaren sekretua / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2004


Espioi bat Alemanian Felipe Juaristi / *El Diario Vasco*, 2004-04-30

Badira munduan, gure irudimenezko munduan, literatur lan apartak izan gabe, entretenigarri diren liburuak. Horietako bat dugu Alberto Ladron Aranarena, abentura nobela bat, Espainiako gerra Zibila amaitzeko eta II Mundu Gerra hasteko zorian dagoen momentuetan kokatua. Erdi euskalduna eta erdi alemana den espioi bat da protagonista, Oskar, Bizkaiko frontean hilkintzan ikasitakoa. Jaurlaritzako zerbitzu sekretuek Parisa bidaltzen dute eta handik Alemaniara, naziek Tibetera egindako espedizio baten ondoren ekarritako zerbait, izugarria bezain sekretupekoa, zer den argitzeko. Zerbait hori, noski, gehiago du zerikusirik edo eragin handiagoa du giza alderdi espirituzkoarekin, alderdi haragizkoarekin baino. Ez da Grialak, ez, baina antzeko zerbait, fedea suspertzen eta ohikoa oro mirarizko bihurtzen duten horietakoa.

Oskarrek batera, baina beste aldean Del Valle polizia dago, frankista. Harekin batera lanean, alemanak, eta Gestapo. Del Valle pertsonaia, aitortu beharra dago, Oskarren ifrentzua da eta horrexegatik hain zuzen dago bien artean hainbesteko berdintasun. Del Vallek ez baititu begi onez ikusten alemanak, oso traketsak baitira (nobelan behintzat) eta odol-goseak ezin jakin zenbateraino, eta nahiago du bakarrik ibili, haien konpainian baino. Azkenerako pertsonaia sinpatikoa egiten zaio irakurleari, ez baita polizia topiko eta tipikoa. Badu zerbait erakargarria egiten duena.

Benetako pertsonekin batera fikziozko pertsonaiak nahasten ditu egileak, giroa ere benetakoa da, baina Oskarren abenturak erabat gertatzen dira sinesgaitzak, irudimenezkoak baitira. Liburua irakurri ahalean, bururatzen zitzaidan aspaldiko folietin haien usaina, zenbat eta aurreago joan historia eta orduan kontu sinesgaitzagoak eta ausartagoak ageri, gero eta kontu bitxiagoak ikusi, irakurlearen atentzioa bereganatzeko. Nire kasuan, atentzioak amaiaraino eutsi dio bere horretan.

AHAZTUEN MENDEKUA



2009

Iratin dabiltzala, eztabaidan hasi dira Ana eta Oskar, neskak deskubritu baitu mutilak harremanak dituela beste gizonezko batekin. Liskarraren ondotik bereizi egiten dira mendian: Oskar autoa utzia duten lekura itzultzen da; Ana, berriz, ez da inondik ere agertzen. Foru Polizia hasiko da desagertzea ikertzen, baita Oskar bere kasa ere, hilketa baten errudun egingo duten beldurrez. Egunek aurrera egin ahala, pertsonaiak gero eta katramilatuago aurkituko dira, hainbat hari-mutur dituen matazan: jelsia, diru-interes ilunak, iraganeko gertakari are ilunagoak...

Ahaztuen mendekua / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2009

Holakoak Chicagon, halakoak Iruñean Saio Ruiz / *Argia*, 2010-01-24

Noizbait irakurri al duzue, zuen herria fikzioaren ekintzen gertaleku bihurtu duen eleberririk? Horrek sortarazten duen sentsazioaren berri sekula ez nuen izan, herrikide dudan Alberto Ladron Arana idazle iruindarraren *Ahaztuen mendekua* eleberria irakurri dudan arte.

Interesgarria da aztertzea zenbateraino baldintzatzen duen espazioaren hautuak eleberri baten egituraketa eta tratamendua, —normalean modu automatikoan egiten dugun— fikzioarekiko paktua aurrera eramateko eta beharrezkoa dugun nolabaiteko sinesgarritasun puntua eskuratzeko. Baina sinesgarri izate horrek ez du zertan errealistaren baliokide izan behar, zenbait unitate narratiboaren errealitatearekiko gehiegizko identifikazioak, irakurlearengan jarrera eszeptikoa pizteko arriskua sor dezakeelako. Horixe da espermentatu ahal izan dudana sentsazioa.

Iruña dugu polizia eleberri honetarako kokaleku hautatua. Idazleak baliatzen dituen leku-izen eta espazio ezagunegien erreferentziek, narrazioak eskaintzen duen gertakizunen bilbean murgiltzeko arazoak sortu dizkirate; bertakoa izanik, espazioarekiko konexioa saihestu nahian, zenbaitetan behartua sentitu naiz distantziamendu kontzientek egitera eta errealitatearen alde inpartzialki lerratzerara.

Funtsean, argumentuaren azalean, maitasun triangeluaren motiboa eta horrek eragindako problematika topatzen dugu; bi gizon eta emakume bat. Jakina denez, maitasun kontuetan hirugarren pertsona baten presentzia ez da batere atsegina suertatzen eta beraz, batek erditik kendu beharko du. Emakumea Iratin desagertzen denean misterioaren motorra martxan jarriko da. Eta desagertzearen arrazoiak argitzeko ikerketa abian jartzen denean, hilketa ilun, diru-interes eta inplikazio politikoak beteriko gertakizun kateatuen partehartzaile bihurtuko dira pertsonaiak, bigarren istorio baten bidez. “Holakoak Chicagon gertatzen ziren, ez Nafarroan” (121. orrialdean); honen bitartez narrazioak agerian uzten ditu fikzioaren maila eta gradu desberdinak, espazioaren balio errealista markatu horren insistentziaz ohartzen garelarik. Bada Nafarroan, Errepublikara garaian gertatu zen zerbait eta fikzioaren aitzakiaz salatu nahi izan dena. Garai hartako sarrasketako biktima ahanziak dira, salaketa horren oinarrian dauden eta gogora ekarriz berpiztu nahi izan omen diren “pertsonaia” nagusiak, horregatik *Ahaztuen mendekua*. Hala ere, maitasun triangeluarekin zer gertatzen den jakiterik nahi?

ZER BARKATURIK EZ



2011

Bolada txarra darama Mikel Izuk: andreak utzi zuen, lanean ez da agertzen depresioagatik, bere anaia Julenen alprojakeriak jasan behar ditu... Hain zuzen, anaiaren etxean behatz moztu eta odoldu bat aurkitzen duenean hasiko dira gauzak are gehiago okertzen eta aldrebesten. Saltsa loditzeko, beste hainbat osagai: Andaluziatik datorren neska pinpirin bat, II. Mundu Gerra garaiko mugaldeko abentura ahantzi bat, senar jeloskor bat, naziak eta juduak, drogetrafikoan sartutako ukrainarrak, nora ezean dabiltzan foruzainak... Alberto Ladron Aranak, ohi duenez, maisutasunez ondu du polizi eleberri hau, protagonistaren gorabeherak eta misterioaren hari ezkutuak idazkera arin eta erritmo biziarekin josiz.

Zer barkaturik ez / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2011

Zer barkaturik ez Lurdes Imaz / *Aizu!*, 2012-12

Alberto Ladron Arana (Iruñea, 1967) misteriozko eleberrigilearen bosgarren nobela dugu *Zer barkaturik ez*. Emazteak utzi ondoren, depresioan eroritako Mikel Izu da protagonista. Julen anaiaren etxean behatz moztu eta odoldua aurkitzen duen momentuan ezagutuko dugu, eta handik aurrera hasiko da nahasten hilketak eta misterioa batzen dituen nobela beltz hau.

Bada bigarren protagonista bat ere: Almeriatik Iruñera iritsitako Lucia Baena gaztea. Luciaren aitona Nafarroan egin zuen soldadutza, eta han izandako ezbehar batek ez dio lasai bizitzen uzten. Senarrarengandik banatu berria da Lucia eta Mikelek lagunduko dio aitonari gaztetatik buruhaustea sortu dizkion abentura hura argitzen.

Bien historiak elkartuz idatzi du nobela egileak. Bataren zein bestearen bizipenek osatuko dute narrazioa: Julenen atzetik dabiltzan ekialdeko droga trafikanteak, Luciaren senar bortitza, II. Munduko Gerra garaiko abentura, psikiatrari egindako bisitak, eta abar. Mikelen emazte ohi Lidia ere bertan izango da, haren hitzak bueltaka baititu etengabe buruan, psikiatra "pentsamenduak kontrolatzeko teknikak" erakusten saiatuko den arren.

Erritmo biziko nobela dugu, hasieratik bukaerara gustura irakurtzen dena. Istorio desberdinen nahasketak aberastu eta erakargarri egiten du irakurketa, eta bukaeraraino eusten dio interesari. Gainera, protagonista erakargarria osatu du idazleak, irakurlea erraz harrapatzen duten horietakoa.

PIZTIAREN BEGIAK



2012

Piztiaren begiak, Alberto Ladron Arana: Kartzelan urteak pasatu eta gero, iraganeko zorrak garbitu nahi dituen gizasemea, batetik; negozio ilunak tarteko postutik baztertu zuten eta bere bizkarra zaindu behar polizia, bestetik. Ehiztari-sena dute biek, eta bata bestea harrapatu nahian dihardute, eginahal guztian. Erdian, berriz, nora ezean dabilen koitadu bat, duela urte batzuk bere familia ezbehar batean galdu zuena, eta orain familia berri bat osatu nahi lukeena. Alberto Ladron Aranak ohiturik gauzkan maisutasunez josi ditu eleberri bizi-bizi honen hariak, misterioa eta suspensea erabiliz irakurlearen arreta bereganatzeko.

KULTURA

ALBERTO LADRON ARANA

"Ez dut ezer orijinalik esan nahi, ahalik eta kalitate handieneko zer edo zer entretenigarria, baizik"

Piztiaren Begiak, Alberto Ladron Aranaren azken thrillerra kalean da. Giro frenetikoa, nortasun nahasteak eta mozorro festa ez dira falta eleberrian. Suspensearen hariak mugitzen badakiela erakutsi du beste behin Iruñeko egileak, bere lanik onena kontsideratzen duen obra honetan.

Iratxe Esnaola

2342. alea
2012-10-28

Hiru ahots narratibo hiru gizonen barrunbeak erakusten. Xabier Betelu ETA kide ohia, kartzelatik atera berri, hilobi bat profanatzen ari da.

Dasilva enpresariak, Iruñeko Brigada Antiterroristan aritua, sekretu zaharrak ate joka ditu. Jonek, familia istripu latz batean galdu zuen langabetuak, eskutitz bitxi bat jaso du. Osagai nagusiokin osatu du egileak bere seigarren eleberria, Xake Mate (2002), Eguzki beltzaren sekretua (2004), Arotzaren eskuak (2006), Ahaztuen mendekua (2009) eta Zer barkaturik ez (2011) lanen ostean. Albertoladron.com webgunean egileak booktrailer bat apailatu du eleberria promozionatzeko eta irakurleak erakartzeko. Gu erakarri gaitu Nafarroako Unibertsitate Publikoraino, trama garatzen den Iruñea bertaraino. Bere konpainiaren xarmapean ikastetxeko iraganbideak, bat-batean, thriller berri baterako eszena egokiak otutzen zaizkigu.

Pertsonaietako bat ETA kide ohia da, eta bestea, Iruñeko Brigada Antiterroristan aritua. Irakurketa politikotik eutsi ohi zaie usu bi gaiok. Zuk thrierrera ekarri dituzu...

Eleberri beltzak idazten dituztenek euren liburuak baliatzen dituzte tokiko gatazkez hitz egiteko. Irlandan IRA hartuko dute aipagai, Amerikako Estatu Batuetan, aldiz, beltzen bazterkeria. Pilean dauden gaiak protagonismoa hartzen dute, beraz. Borroka armatuarekin loturiko argumentua egin nahi nuen nik. Egoerak errazten du gaiak jardutea, eta bakoitzak bere bertsioa eman nahi duen garaioan, nik neurea eskaini nahi izan dut, nahiz nobelan lerro artean doan, eta ez nabarmen.

Iraganaren ezagupenak eta berrirakurketak berebiziko garrantzia du zure lanetan.

Halaxe da. Orain arte iragan urrutikoa baliatu izan dut, zela Gerra Zibila, zela Bigarren Mundu Gerra. Oraingoan, baina, gure garaian dago girotua drama nagusia eta hamaika urte besterik ez dut egin atzera, iraganeko istorioaren bila. Hurbiltasun honek aukera eman dit iraganetik orainera datorrenari arreta zerk pizten dion erakusteko. Esate batera, Xabierrek hainbat urte espetxean eman ditu. Bada, niri, Iruñera itzultzean nolako hiria aurkitzen zuen islatzea interesatzen zitzaidan.

Securcom enpresa da Dasilvaren lantokia. Stieg Larssonen trilogia ezagunean Lisbeth Salanderrek lantokizat duen segurtasun enpresa gogorarazi dit.

Egia esan, Larsson ez dut bereziki atsegin, Eskandinabiako eleberrien oso zalea naizen arren. Hennin Mankeell eta bere Wallander inspektorea gustuko ditut. Estatu Batuetako eleberri beltza, berriz, nahiko arrotza zait. Oso bortitza da, denek armak baitaramatzate gauza normala balitz bezala. Europako eleberrietan bada indarkeria, noski, baina ez hain muturrekoa, eta gainera, deskribatzen dituzten gizarte giroak hurbilagokoak zaizkit. Beraz, bai, ziurrenik horren denaren isla nabariko da nire eleberrietan.

Amaiera harrigarriak izan ohi dira zureak. Pausoz pauso zaintzen dituzu detaileak eta suspensea mantendu. Plan jakin batetik abiatzen zara. Ez zara aspertzen gero bidean?

Nobelaren puntu nagusiak alde zaureratik pentsatuak izaten ditut, baina idatzi ahala eta ideiak bururatu ahala, argumentua aldatu behar izaten da, askotan. Kasu honetan nahiko goiz bururatu zitzaidan amaierako aldaketa eta argumentua harantz bideratu ahal izan nuen.

Ondo bideratu ere. Xabierrek amaieran ematen digun ezustea ez da nolana hiko...

Irakurleak ez du ikusten irakurtzen ari dena, zineman gertatzen denaren kontra, eta hortxe dago koska. Tranparik ez diot egin irakurleari. Engainatu bai, baina gezurrik esan gabe. Karta guztiak mahai gainean dauzkazu, nahiz partida osoa ulertzeko modurik ez izan.

Goazen zure hastapenetara. Euskaraz ikasten eta idazten hasi zinenean ohartu zinen euskaraz apenas zela zientzia fikziorik, fantasiarik, thrillerrik. Aspertu egiten zinen.

Jende askori gertatu zitzaien 1980 eta 1990eko hamarkadetan. Bai euskal literaturak eta bai garaiko itzulpenek aspertzen ninduten. Ez zen nobela beltzik euskaraz, ez fantasiako narratziarik, bertako idazleak beste tradizio batetik zetozelako, edo. Hasieran, gogoz kontra irakurtzen nuen euskal literatura, euskara ikasteko eta ondo idatzi ahal izateko, eta ez irakurtzearen plazer hutsez.

Badakit ez duzula hutsunerik bete nahi euskal literaturan, baina zure liburuen salmentek zerbait betetzen duzula diote.

Irakurle askok esan izan dit: “Bazen ordua halako zerbait azal zedin!”. Orain ari dira argitaratzen beste nobela beltz batzuk eta ziur naiz aurrerantzean gehiago izango direla. Mota honetako liburuek beste hizkuntzetan zer harrera duten ikusi besterik ez dago. Euskara normalizatu ahala, euskal literatura ere normalduko da.

Adi zerrendari: mendeku-gosea, zelata, xantaia, tortura, gezurak, erailketak, hildakoak. Alderdi ilunik gabe eleberri beltzik idatz daiteke?

Nik baino ahalmen handiagoa dutenek, beharbada, egin ahalko dute! Ni oso klasikoa naiz, ordea. Ez dut ezer orijinalik egin nahi, ahalik eta kalitate handiena izango duen zer edo zer entretenigarria, baizik. Ez naiz jenioa. Liburu onak egitea dut xede, ez besterik.

Eta ona atera al da azken hau?

Nire eleberririk onena iruditzen zait eta irakurleen mezuak ere positiboak izan dira. Pentsa, iraileko liburu salduena izan da! Nire lanekin kritiko agertu ohi naiz argitaratu eta zenbait hilabetera berrirakurtzean. Baina oraingorekin, oraingoz, pozik nago.

Piztiaren begiak / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2012

Ehiza garaia Iratxe Esnaola / *Berría*, 2012-10-21

Amaierarik errebelatzen ezin diezaiokegun thrillerraren iruzkina idaztea eta haren mamia transmititzea ez da lanterri erraza, baina ezta ezinezkoa ere. Alberto Ladron Arana egile zaildua da genero beltzean eta aurre eskema bati jarraiki idazten duen neurrian, ubera uzten du jasogarriak zaizkigun hainbat arrastorekin. Badugu hildako mordoxka bat. Iragan lausoaren karga astun eta itzal are luzeagoa. Baditugu muturreko pertsonai bi noraezean dabilen hirugarren baten atzetik. Hori guzti hori Iruñea paisaiatzat hartuta. Horiexek dira Ladron Aranaren zazpigarren eleberriko zertzelada zenbait. Orain arte arrakasta lortu izan duten beste eleberriak eraiki izan dituen orube berean eraiki du fikzio berri hau ere, elkarrizketa dinamikoak baliatuz, trama eta azpi trama aurrez landuak eta gero ondo bururatuak osatuz. *Arotzaren eskuak* (2006) eleberriak 14. edizioa lortua du. Lehenago argitaratutako lanak ditu *Itzalaren baitan*, *Xake Mate* eta *Eguzki beltzaren sekretua*. Ondorengoak, berriz, *Ahaztuen mendekua* eta *Zer barkaturik ez*. Generoari erabateko atxikimendurik ez dion irakurlearentzat kontakizunaren erritmo bizia da thrillerra erakargarri egin dezakeen osagaietako bat, eta irudi luke badakiela hori egileak. Datek markatzen dituzte kapituluak eta astebete eskasean garatzen da trama. Bestalde, deskribapen ponpoxo eta landuetatik urruti, espazioek beren funtzionalitatearen arabera arreta jasotzen dute, eta gainera, pertsonaien ezagutza ekintzen bitartekoa izaki, ez da haien nolakotasunean luma luzaz pausatzen. Horrek guzti horrek akuilatzen du orrialdeen iragate bizkorra eta generoaren bizkarrezur den suspensea mantentzen du, prosa funtzionalitatearen mesedetara jarritz.

Hiru pertsonaia nagusietarik lehenengoak, Jon deituriko langabeak, emaztea eta alaba galdu zituen duela hamaika urte auto istripu batean. Bigarren pertsonaia Xabier Betelu da, ETA kide ohia, kartzelatik atera berria, eta hirugarrena, Dasilva enpresa-gizona, Iruñeko Brigada antiterroristan aritua. Arlo sozialetik eta irakurketa politikotik eutsi izan zaie azken bi esparruoi, gehienetan, eta nobedade izan dut ez literaturan edo fikzioan paratuak ikustea, baizik thriller batean euren pertzepzioa nola aldatzen den nozitzea. Tarteka, filmak ekarri dizkit gogora eszenen ordenamenduak, nahiz literaturak generoari eskain diezazkiokeen tresnak ondo baliatzen diren.

Batetik, adieraziko ez dugun amaieran *testualtasunak* paper garrantzitsua jokatuko du, eta bestetik, barne-ahotsak errebelatu ahal izateak abantailak dakartzkio eleberriari, zineman ondo erabiltzen zail den off teknikaren alboan eskuragarriago. Hain zuzen, Dasilvak ahots zigortzaile bat du buruan eta ahotsaren errepikapena ezin kontrola izateak asko laguntzen du senetik irteten den eleberriko giroan. Azken nobelan ere, *Zer barkaturik ez* hartan, Mikel Izu protagonistak emazte ohiaren ahotsa zuen buruan, ahots inperatibo bat, aginduzkoa eta mespretxuzkoa. Behin giroaz eta emazteez mintzoan hasita, aipa dezagun ahots narratiboak hiru gizonen gogoia jarraitzen duen neurrian gizonetzkoen ahotsa dela nagusi. Irudipena izan dut, artean, sineskorrago zaigula kultur jardunean ETA kide eta polizia zigortzaileak gizon izatea, are, harrapari-ehizari eta eskrupulurik gabeak badira, tradizioak horrelaxe ekarri izan dizkigulako fikziora estereotipo zenbait batuz gizonak, emakumeak beste ezaugarri batzuen pean ekarri dituen bezala (maltzurra, hotza, kalkulatzailea...). Esango nuke ehiza frenetikoaren sentsazioa sentiarazteko idatzi dela liburua eta helburua bete duela. Mendekua, sekretuak eta ezustekoak ez dira falta ehiztaria ehizaki bihur daitekeen terrenoan.

HARRIAN MEZUA



2014

***Harrian mezua*, Alberto Ladron Arana:** Negu gorrian, mendi punta elurtuan, gailurreko zutarri batean kateaz loturik, gizon bat agertuko da biluzik, putreek erdi jana, heriotza lazarri baten zantzu guztiekin. Eta lehen deskubrimendu horren ondoren beste zenbait, aurrekoa bezain izugarriak. Leire Asiain Foruzaingoko inspektorea arduratuko da kasuaz, baina ikerketan aurrera egin ahala mataza gero eta korapilatuago, tartean direla prostituzio-sareak, haur desagertuak, ETaren kontrako borroka zikina...

Alberto Ladron Aranak thriller berri bat oparitzen digu, beti bezala misterioaren hariak ezin hobeki josiz eta irakurleari arnasa hartzeko beta doi-doi eskainiz.

OTSAILAK 2, IGANDEA

1

–Asko falta da? –galdetu zuen Leire Asiain inspektoreak.

–Hiru bat kilometro –Alberro inspektore-ordeak esku batekin eutsi zion bolanteari, bestearekin mugikorra sakelara bihurtu bitartean–. Rifa doktorea zen. Gure zain daude.

Asiain Mitsubishi Monteroaren eserlekuan hondoratu, eta gogoia hutsik mantentzen ahalegindu zen. Hogei metro aurrerago zebilen ibilgailuari so egin zion. Brigada zientifikoaren furgonetak mantsotasun amorragarri egiten zuen aurrera pista elurtuan. Elurra pagoen adarretatik erori, eta hauts urdinxka batez ziprirtintzen zuen haizetako.

Gurpilek irrist egiten zuten, baina Alberrok lortu zuen ibilgailua bidetik ez ateratzea. Bero egiten zuen autoan.

Asiainek begirada galdu zuen enbor zurituen labirintoan.

Baso izoztuak amaiezina zirudien.

–“Gero eta barrenago sartzen ginen ilunbeen bihotzean...”–erran zuen Alberrok.

–Zer?

–Liburu batekoa da.

–Ez dut ezagutzen.

–Gabonetan irakurri nuen. Apocalypse now filma egin zuten, nobela oinarri. Gizon zibilizatuak basatasunari dion izuaz dihardu. Berokuntzak gasolioaren usaina zekarren. Mitsubishiak zabukada egin zuen zulo baten gainean igarotzean, Asiaini hortzak kirrinkaraziz.

–Gelditu autoa –erran zuen.

–Hemen?

–Gelditzeko erran dizut.

Asiain ibilgailutik atera eta lasterka urrundu zen zuhaitzen artean. Alberro atzetik zetorkiola entzun zuen, baina, handik bidali ahal izan baino lehen, goragalea etorri zitzaion. Urdaila hustu zuen pago baten kontra bermaturik.

–Ongi zaude? –Alberrok.

–Primeran. Pista alu hori da.

Elur pilota bat eginez, sagar bat balitz bezala jan zuen, eztarriko erredura arintzeko. Bururatu zitzaion txikitatik ez zuela elurrik jan.

–Goazen.

Ibilgailura itzuli ziren elurretan belaunetaraino hondoratuz.

Zientifikoaren furgoneta ere gelditua zen, eta agenteek leihatiletatik begiratzen zieten. Alberrok segitzeko keinua egin zien bolantera itzuli aurretik.

–Beharbada, hobe dugu urdaila hutsik eduki hara iristen garenean.

Minutu batzuk geroago iritsi ziren pistaren amaierara.

Foru Poliziaren beste bi ibilgailu zeuden han. Haien kolore gorriak tokiz kanpokoia ematen zuen paisaia zuri-beltzean. Agente batek agur egin zien eskuaz. Haren zamarreko kabu galoiek distira egin zuten fokuen argitara.

Asiain eta Alberro autotik atera ziren. Asiainek zeru koloregari eskaini zion aurpegia. Orratz ñimiñoek ziztatu zioten azala. Eguneko edozein ordu izan zitekeen. Denborak eta argiak izozturik ziruditen.

Dozena erdi bat agente hurbildu zitzaien. Eskularru lodiak zeramatzen eta sudurreraino goraturiko lepokoak.

Asiainek keinu batekin agurtu zituen, kabuaren eskua tinkatu aurretik.

–Denok gaude? –galdetu zion.

–Rifa doktorea hor dago –kabuak, auto batetik ateratzen zen gizon txiki bat seinalatuz–. Epailea bidean da.

–Norena da auto hori? –Alberrok, Land Rover lokaztu bat seinalatuz.

–Gorpua aurkitu duen abeltzainarena –azaldu zuen kabuak–. Bere behorretako baten bila dabil.

Rifa doktorea buru makurtze bat egin zuen taldera biltzean. Auzitegiko medikuak kapela tioldarra eta gomazko botak zeramatzen. Hitz batzuk trukatu zituzten, hotzari eta errepideari buruzkoak.

Asiain ohartu zen ahopeka hitz egiten zutela. Begiak basora bihurtzen ziren behin eta berriz: han, zuhaitzek ere xuxurlaka ziharduten.

Brigada zientifikoko agenteek paperezko arropak janzen zituzten beren furgonetaren ondoan. Asiainek entzun zuen superheroien film bati buruz ari zirela. Volkswagen ilun bat agertu zen basabidean. Gainerako ibilgailuen ondoan aparkatu, eta epailea eta idazkaria jaitzi ziren. Asiainek begirada bat trukatu zuen Alberroekin.

Zorte txarra: Begoña Montilla epailea.

–Barkatu atzerapena, kateak jartzeko gelditu gara –erran zuen Montillak, berokia lotuz–. Denok gaude?

Banan-banan begiratu zien, soldaduak ikuskatzen dituen jeneralaren gisa. Lakaz harroturiko ileak Margaret Thatcherren antza ematen zion.

–Ez dago ibilgailuetan jarraitzerik –ohartarazi zien kabuak–. Hemendik aurrera oinez joan beharko dugu.

Zalantzazko begirada bat eman zien Montillaren oinetakoei.

–Goazen –erran zuen epaileak.

Basoan barneratu ziren. Hotza are sarkorrago egiten zelako inpresioa izan zuen Asiainek. Begiak goratu zituen: haizearen firfira adarren artean. Elurretan erdi estalitako zuhaitz erori bat saihestu zuten, antzinako animalia baten hezurdura zirudiena.

–Ez dago oso urrun –kabuak GPS baten pantailari begiratu zion–. Toki honek Bretxagain du izena. Zutarri bat dago hor goian.

- See more at: <http://postdata.elkar.eus/alberto-ladron-arana-harrian-mezua->

HITZEN UBERAN

Thriller batekin itzuli da Alberto Ladron Arana

Asteazkena, 2014-10-22

Harrian mezua (Elkar) bere zazpigarren nobela du eta aurrekoen bidetik dator berri hau. Ezin argiago azaldu zuen prentsurrekoaren hasieran: “Polizia nobela da”. Irakurleek bere aurreko nobeletan topatu zituzten hainbat elementu topatuko dituzte honetan ere: “elkarrizketa biziak, erritmo arina, suspentse etengabea, trama hankaz gora jartzen duten aurkikuntza berriak... Nire ohiko irakurleak etxean bezala sentituko dira, lehen kapitulutik bertatik”, Ladron Aranak berak adierazi zuenez.

Xabier Mendiguren Elkarreko editorearen esanetan, “generoko lanak, generoko idazleak ez dute prestigioaren aitortza. Bai aldiz publikoaren esker ona eta harrera beroa. Alberto Ladron Aranak biak lortu ditu, esker ona eta harrera beroa”.

Harrian mezua nobelaren egileak zale sutsuak dituela dio Mendigurenek, “eta ez da kasualitatea, bere nobelen ezaugarrien ondorio da. Oso ondo eraikiak daude. Tramaren hariak eta misterioak oso ondo pentsatuak daude eta mataza nola askatu ere bai. Elementu asko daude baina ondo josiak daude denak”.

Erlojuaren aurkako lasterketa

Elurte handi baten ostean, hiru gizonezkoen gorpuak agertu dira Nafarroako mendietan, modu nahikoa bortitzean hilik eta zutarrietan kateaturik. Foru poliziak ikerketa hasiko du. Ikerketa zaila izanen da, hiltzaileak ez duelako arrasto handirik utzi eta hildakoak ez daudelako ezagutzeko moduan. Zaila den ikerketa hori are gehiago katramilatuko da lau urteko neskato bat desagertzen denean. Zantzu denek adierazten dute mendian agertu diren gizonak hil dituen delak neskatoa bahitu duen berbera. Erlojuaren aurkako lasterketa bat hasiko da neskato hori aurkitu eta haren bizitza salbatzeko.

“Ahuldadez betetako emakume indartsu bat”

Hori da *Harrian mezua* nobelaren trama. Aurreko nobeletan, ikerlari ez profesionalak erabili izan ditu: “persona arruntak, misterio baten erdian suertatzen zirenak eta gogo onez edo egoerak beharturik misterioa argitzen saiatzen ziren. Hori nobela honetan ez da horrela izanen. Nobelako protagonista batzuk foru poliziak izango dira. Ikerlari nagusia Leire Asiain inspektorea da, ahuldadez betetako emakume indartsu bat”. Nobela behar bezala prestatzeko, foruzain batekin ibili zen dokumentazio lana egiten. "Lankideen arteko giroa nolakoa den islatu nahi nuen, modu sinesgarrian”.


ITZALAK BIZI DIREN LURRALDEA



2015 **haur-gazte literat.12-16 urte**

***Itzalak bizi diren lurraldea*, Alberto Ladrón Arana:** Inperioaren mugetan, Arkania urrunean, matxinada-hotsak dabiltza, baita istorio izugarriak ere, aspaldi debekatutako magiaren berpizteaz hitz egiten dutenak. Esku gogorrez erantzun nahi dute armadako buruek, eta horretarako erabiliko dituzte beren zerbitzu sekretuak ere. Naturaz gaindiko gertakariak biderkatzen diren bitartean, gazte beldurti bat, agure jakintsu bat eta matxino ausart bat bidaia harrigarri batean abiatuko dira, eta bidean topatuko dituzte ezpatak, gazteluak eta izaki miragarriak. Abentura eta magiaren aroa hasia da.

AROTZAREN ESKUAK



2006

Arotzaren eskuak, Alberto Ladron Arana: la ezagutzen ez zuen aitonak herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitonaren iraganaz galdetzera behartuko duena.

Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramango du, II. Mundu Gerraren garaian; berrogeitaka urte beranduago Europako hainbat lekutan gertaturiko hilketak sorta izugarri bat ere harrapatzen du, eta bere burua arriskuan egon litekeela sentituko du azkenik.

Bordeleko polizia erretiratu batekin saiatuko da Ane korapiloa askatzen, eta beste horrenbeste egitera gonbidatzen gaitu Alberto Ladron Aranak, suspensez eta ustekabez beteriko eleberri honetan.

Arotzaren eskuak / [Alberto Ladron Arana](#) / Elkar, 2006

Thriller bat Javier Rojo / *El Correo*, 2006-08-16

Alberto Ladron Aranak idatzitako “Arotzaren eskuak” izenburuko eleberria “thriller” generoaren barruan koka liteke. Hilketak izugarriak, hildakoen mundutik datozen aspaldiko misterioak eta nahi gabe ikerketa nahasi batean sartzen den pertsonaia arrunta ikusiko ditugu nobelan. Abiapuntua neska batek aitonaren baserrian aurkitutako gorpu mutilatu batean du. Misterioa argitu nahian, Ane izeneko neska hau Frantzian zehar joango da, Bigarren Munduko Gerran jazotako gertakari batzuekin topatu arte. Nobela misteriozkoa denez, gustura eta erraz irakurtzen da, udarako irakurketa aproposa, alegia. Argumentuan zulo bat baino gehiago dago, ordea. Hau hain garrantzitsua ez bada ere, eta zenbait puntutan, bukaeran adibidez, ez da batere sinesgarria istorioa, eta generoaren sinesgarritasunaz ari naiz.

Hamaika hariko soka sendoa Iratxe Retolaza / *Berrria*, 2006-05-02

Alberto Ladronen hirugarren eleberria (*Eguzki beltzaren sekretua*) argitaratu zenetik bi urte eskas igaro direnean, laugarrena heldu zaigu: *Arotzaren eskuak*. Orain arteko ibilbideari kasu eginez gero, bada, literatura-sariek (hauei esker argitaratu zituen lehen nobelak) idazle oparo baten ibilbidea biziara dute.

Alberto Ladron azpigenero jakin batekiko zaletasuna erakutsi duen nobelagilea da: intrigazko nobela, hain zuzen. Baina, Ladronen lau nobela hauetan intriga ezinbesteko osagaia bada ere, intriga oso bestela landu du hauetariko bakoitzean. Haren ibilbidean misteriotik suspenserako bira nabari da, eta suspensea jorratzeko abilezia berezia sumatu zaio azken nobela honetan. Euskal nobelan ohikoa izan ez den gaitasuna, gainera.

Suspensezko giro hori sortzeko serie-hiltzaile baten istorioaren hariak soka sendo batean bildu ditu. Suspensezko narrazioetan hain ohikoak diren osagaietariko bat dugu harietariko bakoitza: batetik, krisi-egoera batean dagoen pertsonaia dugu, Ane; bigarrenik, Anek bere burua gertaera misteriosu eta arriskutsu batean nahasirik ikusiko du bat-batean, hilotz bat topatzean; hirugarrenik, hilotz haren inguruko auzia askatu nahiko du, gertaera haren berri izateak bere krisi-egoera gainditzen lagunduko diolakoan, besteak beste; hirugarrenik, ikerketak aurrera egin ahala polizia ohi baten laguntza jasoko du; laugarrenik, askatu beharreko auziaren eta pertsonaien arteko harremanen arteko hariak korapilatzen eta lotzen joango dira; eta abar. Hauek guztiak nobela eta filmetan behin eta berriz errepikaturiko arau narratiboak ditugu, dagoeneko irakurle guztion inkontziente kolektibo bilakatuak, nolabait. Horregatik, guztion gogoan diren arau eta egiturak direlako, gero eta zailagoa da irakurleengan suspensea sorraraztea osagai ezagun hauek erabiliz, eta batik bat suspense horri amaierara arte eustea. Baina, Alberto Ladronen suspenseari eusteko iaioitasuna erakutsi digu: gertaerak egonezinez beteriko giroan kokatzen asmatu du; narrazioak aurrera egin ahala tentsioak gora egitea lortu du; eta informazioa tantaka-tantaka dosi egokietan eskaini dio irakurleari. Honela, irakurleari ere auzi eta amarru baten barruan sentiarazi zaio, eta irakurleak Anekin orpoz orpo egingo ditu hilketen arteko loturak, eta baita informazioa bilduko ere. Baina, soka erraz da korapilatzen, nekez askatzen. Eta lan nekez horretan ibili da bereziki trebe Ladron; azken batean, jakin-mina eta sorpresa azken unera arte tenkaturik irauarazi ditu. Soka sendo honetan hari eta korapilo mehe eta ahulik ere bada; baina oro har, soka sendoa gailendu zaio irakurle honi, erabat harrapaturik ikusi baitu bere burua sokaren korapilo artean.

Ladronen lehen nobela (*Itzalaren baitan*) ia oharkabean igaro zen, besteak beste, sari horrek argitalpenari eta zabaltzeari arreta eskasa eskaini ohi diolako. Baina, bigarren (*Xake mate*) eta hirugarren nobelek izan zuten oihartzunik euskal prentsaren kritika-orrietan. Eta are gehiago, badirudi (kasualitatea ote?), Ladronen berak iruzkingile haien aholkuei kasu egin zuela. Deigarriak baitira oso, hain epe motzean Ladronen nobelarik nobela eginiko aurrerapausoak. Eta are deigarriago, aurrerapauso horiek kritikarien esanetatik hain hurbil egotea. Besteak beste, haren ibilbidean honako pauso hauek antzeman daitezke: trama sinesgarriagoa sortzeko saioa; pertsonaien psikologian sakontzekoa; hari-muturrak sendoago lotzekoa; edota trama euskal irakurleenganantz hurbiltzekoa (espazioan eta denboran). Hortaz, idazle oparoa ez ezik, saiata.

Misterioa eta ezustekoa Felipe Juaristi / *El Diario Vasco*, 2006-03-31

Nobela beltza da *Arotzaren eskuak*. Egia esan, sail horretakorik ez da asko argitaratzen Euskal Herrian. Norbaitek, halako nobelen azpiak ezagutzen ez dituenak pentsa dezake erraza dela nobela beltz bat idaztea, edo polizia-eleberria bati ekin eta amaitzea. Amerikarrak oso jaiok dira arte modu honetan, eta lege batzuk ezarri zituzten, garaia zenean. Ez naiz guztiez oroitzen, baina badakit, azkenekoaren arabera, poliziak gaizkilea harrapatu behar zuela. Polizia-eleberrietan, gaizkileak ez du ihes egiten. Hori bestelako eleberrietan gerta daiteke, eta bizitzan, batez ere bizitzan. Baina bizitza ez da eleberria, eleberri txar baten plagio txarra baino ez, gehienetan.

Ladron Aranaren eleberri honek polizia-eleberriaren zenbait ezaugarri bereganatu ditu, misterioa narrazioan barna eta ezustekoa amaieran. Eta misterioa zenbait eta ageriagoa orduan eta jakin-mina handiagoa. Idazkera eta narraziobidea nahikoa sinpleak dira. Eta sinpletasun horrek, ondorioz, eleberriaren espazioa laburtzen du, zabaldu beharrean. Baina sinpletasunak, ohikoan, argitasuna dakar; argitasun gehiegitarra batzuetan. Esan nahi dut generoko eleberriak, Mankellenak esaterako, irakurtzen ohituta dagoenari eleberri hau gutxitxo irudituko zaiola, kaskarregia behar bada, ez baitu hark duen barrokismorik gaian, eta pertsonaiek ez baitute suediarren aberastasunik. Baina eleberri batek misterioa eta suspentsea behar dituela uste badu, honako eleberri honek pozik utziko du. Oso pozik, narrazioak amaieraraino eusten baitio tentsioari.

Gaia bihurri samarra da. Bigarren Gerrako naziek egindako sarraskiaren ondorioetara mugatzen da. Ane baserri baten jabe egin da, ezagutzen ez duen aitona hil egin zaiolako. Baserria Nafarroan da, eta hango lurak txukuntzen ari dela, sagastiak sartzeko, hildako baten hezurdura aurkituko du. Hori da eleberriaren haria. Haritik tiraka, poliki-poliki hilketa-sail batekin topo egingo du, eta pertsonaia berriak azalduko dira eta lurralde berriak, eta aspaldiko historia bat, argia ikusteko irrikatan dagoena. Beraz, azkenik dena argituko da. Baina ez amerikarren legeen arabera.